

ATEJOKA 029

MARTXOA MARZO MARS 2011

KARMELE ARTETXE SANCHEZ

“Krisiak txarrak dira, estuasun ekonomikoak eragiten dituztelako, baina oxigenatzeko balio dezakete”

Karmele Artetxe Sanchez (Zamudio, 1976), Historian doktorea, ikertzailea eta une honetan Udako Euskal Unibertsitateko zuzendaria (UEU). Inguma datu-baseetik abiatuta, Komunitate Zientifiko Euskalduna. Azterketa historikoa eta bibliometrikoa izenburuko doktorego-tesia defendatu zuen 2010ean. Bertan goi mailako euskarazko produkzioa, kide kopurua eta azpiegitura deskribatzen dira, baita beronen bilakaera historikoa azaldu ere. Hala historialari eta dokumentalista gisa, jardun esparru biak uztartu zituen tesian. Une honetan bere ikerketa ildoa nagusia da, euskara zein beste hizkuntza gutxituen erabilera goi mailan, XX-XXI. mendeetan.

Zergatik ikasi duzu historia?

Historia ikastea erabaki nuen eskolan nengoela eta Gizarte irakasgaiko testuliburuei esker. Une hartan, iragandako bizitza, geologikoa zein historikoa, ezin interesgarriagoa iruditu zitzaidan. Historia karrera egitea beraz, bokaziozkoa izan zen. Dena den, imajinatzen dut historia ikasi dugun gehienontzat bokaziozkoa izan dela.

Historian doktore, dokumentalista eta ikerlaria zara. Zer dira bi zeregin horiek historiaz jarduteko umeak?

Historialaria naiz formazioz. Historia ikastean, liburutegi, artxibo eta dokumentazio zentroekin trebatu egiten gara karreran bertan. Gerora trebakuntza hori fintzeko eta doitzezko aukera izan nuen Inguma datu-basean lanean aritu nintzenean. Historialari eta dokumentalista naiz beraz, eta nire ikerketetan biak uztartzen ahalegintzen naiz.

Nola ikusten duzu UEU epe ertainean?

Futurologo txarra naiz, seguru aski horregatik aukeratu nuen Historia. Hala ere saiatuko naiz

galderari erantzun. Oraingoz argi dudan gauza bakarra da epe ertainean UEU inguratzen gaituen krisitik indartuta irtenetan ikusiko dugula. Krisiak txarrak dira, estuasun ekonomikoak eragiten dituztelako, baina oxigenatzeko balio dezakete. Esate baterako, denboraren poderioz eta konturatu gabe finkatzen diren inertziak berrikusteko aukera ematen dute. Den dena berraztertzeko aukera irekitzen dute.

Nola definituko zenuke UEUren zeregin euskal gizartean?

Euskal gizartearen baitan UEUren egitekoa unibertsitario euskaldunen topagune izatea da. Unibertsitate eta bestelako ikastetxe eta zentroetan sakana batutako ikasle, irakasle, ikertzaile eta profesional euskaldunen elkarlanerako baratze izatea.

Zergatik dago UEUren beharra?

Euskara goi mailan, edo unibertsitatean nahi boda, normalizatu gabe dagoelako, bai erregistroa, baita erabilera ere.

Noizko Euskal Unibertsitatea?

Unibertsitate berriak parlamentuen erabakiz sortzen dira. Spainian hainbat unibertsitate pribatu sortu dira modu horretara azken urteotan. Euskal Unibertsitatea sortzeko beraz, borondate sozialaz gain, erabaki politiko bat behar da. Horretaz guztiaz arduratzeko, Euskal Unibertsitatearen aldeko Fundazioa dago. Bertan UEUk beste zazpi elkartea eta erakunderekin indarrak bildu ditu, Euskal Unibertsitatea egingarri egiteko.

Nolako eragina izango du ikasleentzat Bolonia Planak?

Unibertsitateko ikasketek berrikuntza pedagogiko sakonaren beharra zuten, eta



berrikuntza badirudi Boloniarekin etorriko dela, bestela ere egin zitekeen baina Boloniarekin etorri zaigu. Boloniaren berrikuntza pedagogikoen onuradun nagusiak ikasleak dira. Izan ere, Boloniarekin ikasketa unibertsitarioak ikaslearenengan zentratzen dira, bere lanean.

Nola eragingo du irakasleen jardunean?

Irakasleria osoaren sakoneko berrikuntza pedagogikorik gabe, modu berrian irakatsi nahi izatea, ez da ezinezko, baina bai oso zaila. Tentsioak badira, hori ezin da ukatu, baina ez daukat zalantzarik irakasle batzuk ahalik eta ondoen egokitzen saiatuko direla. Badakit ere, beste batzuk betiko moduan jarraituko dutela.

Etorkizuneko Euskal Unibertsitatearen proiektuan nola eragingo du?

UEUk 2006. urtean kaleratutako “Euskal Unibertsitatearen oinarrizko ezaugarriak” dokumentuan Euskal Unibertsitatearen oinarrizko bost ezaugarrien artean bosgarrena honako hau zen: “Europako unibertsitate-esparruan homologagarria”. Hain zuen ere, Euskal Unibertsitatea Europako unibertsitate sistemaren parte hartzen zuen unibertsitate gisa irudikatzen genuen. Urte batzuk igaro dira aipatutako dokumentua prestatu zenetik, eta iaz UEUk Fundazioaren eskariz Euskal Unibertsitatearen Hezkuntza Proiektua prestatu zuenean ere, esate baterako, Boloniak hezkuntzaren alorrean ezarritako konpetentziak aintzat hartu zituen.

Mikel Asurmendi

Elkarritzeta osoa: www.euskonews.com/565zbk/

La entrevista completa está disponible en euskera y castellano en la dirección mencionada.

MIKEL NAVARRO ARANTZEGI

Berrikuntzako sistemak alderapen edo Benchmarkinga

Lehiakide arrakastatsuei begiratzen zaienean eta haienkin norbera alderatzen denean berrikuntzako ikasteko asmoz, benchmarking egiten dela esan ohi dugu. Batzuk, ordea, ez dira lurralteko benchmarkinga egitearen aldeko. Izan ere, toki batean ongi funtzionatutako gauza batek ez du beste toki batean ongi funtzionatu behar. Gauzak ezin dira, besterik gabe, kopiari eta txertatu, batean eta bestearen dauden ingurumari edo testuinguruak aintzakotzat hartu gabe. Benchmarking edo alderapena egiteko lehenengo araua zure antzeko baldintzak dituzten horiek identifikatzea izango litzateke; ondoren, bigarren araua, zure antzekoak diren horietatik zeinek jardun duten hobekien erreparatu, haietatik zer ikasi gehiago egongo delako; eta azkenik, emaitza hobe horiek zergatik lortu dituzten ulertzten ahalegindu.

Zein dira, lurralteko benchmarkinga egin nahi izanez gero, zure antzekoak diren jakiteko begiratu beharreko alorak?. Aditurek diotenez, besteak beste, aldagai geo-demografikoei (biztanle kopurua, dentsitatea, adina, kokapena etab.) eta espezializazio sektorial eta teknologikoari kontu egin beharko genioke. Lehiakortasunerako Euskal Institutuan horrelako ariketa bat egin dugu eta EAE Europako Batasuneko (EBko) gainerako 205 erregioekin alderatuta dugu eta EAEren antzekoen diren 30 erregioak identifikatu ditugu. Gehienak Alemania, Italia eta Austriakoak dira. Badaude, bi Espaniakoak ere: Katalunia eta Nafarroa. Oro har, lurralteko horiek, biztanleria apur bat zahartuta dute, ongi

kokatuta daude; industrian espezializatuta daude; eta industriaren barruan, Metalean eta Material elektriko eta elektronikoan.

Horrela egindako benchmarking ariketatik hainbat ondorio esanguratsu ondorioztatu ahal izan ditugu. Lehen-lehenik, EAE EBko erregioen batez bestekoak baino emaitza ekonomiko (hau da, biztanleko errenta, produktibitate etab) hobeak baditu ere, lehen esan bezala identifikatutako erregioekin alderatuta EAE emaitza ekonomiko kaskarragoak erakusten ditu. Beraz, EAEren arrakasta ekonomikoa neurri handi batean lehian jarduteko dituen baldintza horiei (alegia, espezializazio sektorial eta teknologikoari) zor zaie, eta ez horrenbeste hemengo jarduleen portaerari.

Bigarrenik, azken aldi horretan maiz esan izan da EAE lehiaketako paradoxa gertatzen zela, lortutako emaitza ekonomiko onak ez baitzetozen bat EAeko berrikuntzako adierazleen (adibidez, patenteen) emaitza kaxkarrekin. Bada orain egindako benchmarkingean, ekonomi eta berrikuntzako emaitzak adierazleen artean zegoen aldea ia desagertu dela aurkitu dugu. Alde batetik, azken urteetan krisi ekonomikoak gogor astindu ditu Espainiako eta, neurri zertxobait apalagoan, EAEko ekonomiak eta horrek ekarri du EBko erregioen aldean EAEko ekonomia atzeria egitea (batik bat, enplegari buruzko adierazlean). Eta bestalde, berrikuntzako adierazleetan EAEk hobetzen segitu du, krisia gorabehera. Horren ondorioz, orain dela urte

batzuk agerian zegoen lehiaketako paradoxaren arrastorik ia ez dago.

Hirugarrenik, askotan esan izan da EAE patente gutxi zegoela, hemen farmazia, kimika eta tankerako sektorrik ez zegoelako, eta gurea bezala metalean oinarritutako ekonomia batean, berrikuntza I+G eta patenteei lotuta egon ordez, beste jarduerei (adibidez, hornitzalea eta bezeroekin harreman estuak izateari) lotua zegoelako. EAEren baldintza antzekoak dituzten erregioek, ordea, erakusten digute azalpen hori funts gutxiko ustea zela, zeren eta haien EAE bezala metalean espezializatuta baitaude eta, emaitza ekonomiko hobeak iristearaz gainera, biztanleko patente askoz gehiago ere lortzen dute.

Laugarrenik, azken hamarkada honetan sarritan EAEko berrikuntzako sistemaren eraginkortasun eza salatu izan da. Sisteman sartzen ziren baliabideekin alderatuta (adib. egindako ikerketa eta garapeneko kostua), outputeko berrikuntzako adierazleak (adib. argitalpen zientifikoak edo patenteak) txit kaxkarrak ziren. Oraingo benchmarkingean, ostera, jadanik horrela ez dela aurkitu dugu. Duela urte batzuk halaxe zen, bai; baina azken urte hauetan aurrerapauso handiak eman dira outputeko berrikuntzako adierazleetan eta, eraginkortasunari dagokionez, dagoeneko EAE ez da EBko gainerako erregioak baino gaizkiago ari.

Azkenik, berrikuntzako jardueretan EAeko berrikuntzako sistemaren ahuleziarik handiena gainerako sistemekiko lotura eskasa da. Edo bestela esanda, gure sistemaren endogamia. Gaur egun, gero baino gero, *open innovation* deituriko mundu batean mugitu beharra dagoela kontuan izanik, garbi dago hutsune hori gainditzeko lehentasun guztia eman beharko zaiola berrikuntzako politikatik.

Paperetik sarera

www.euskomedia.org

En el tiempo y en el espacio

El 18 de marzo se cumplen cien años del nacimiento del poeta Gabriel Celaya, y un mes después, el 18 de abril, el vigésimo aniversario de su fallecimiento. Estas dos efemérides nos mueven a destacar este mes la magnífica voz dedicada al poeta en la versión digital de la enciclopedia Auñamendi. Una amplia y muy matizada síntesis de la vida y de la obra del autor de *Canto en lo mío*, acompañada de textos antológicos, cronología vital y bibliografías completas. Desde nuestro escaparate en www.euskomedia.org nos sumamos así al homenaje más que merecido a Celaya en el centenario de su natalicio.

En las últimas semanas los titulares de actualidad están copados por los acontecimientos que se vienen sucediendo en el norte de África. Echando la mirada atrás, descubrimos a un vasco que tuvo un destacado papel militar en aquellas tierras: Pedro Bereterra, también llamado Pedro Navarro, nacido hacia 1460 probablemente en Garde, Valle de Roncal, y fallecido en Nápoles en 1528. Al frente de un ejército de quince mil hombres, en 1510 aquel general que había sido pastor en su infancia, conquistó Bugía, en Argelia, luego Trípoli y Túnez. Aunque su fama se debe sobre todo a que fue si no inventor, al menos introductor del uso de minas

explosivas terrestres en el asalto a fortificaciones. Vale la pena leer su aventurera biografía.

Cuando Bereterra llegó al mundo, empezaba a declinar el mundo feudal y con él una costumbre sexual propia de la Edad Media: el **derecho de pernada**. Buceando en euskomedia.org hemos encontrado un interesantísimo artículo del historiador Iñaki Bazán titulado *¿Se practicó en Álava el derecho de pernada?* El texto describe qué era el derecho de pernada y las tres modalidades como se practicaba: una, el señor yacía con la esposa del siervo en su noche de bodas; dos, en su vertiente simbólica; y la tercera

como un abuso del señor desligado del contexto marital. Una curiosidad que, como en los restantes casos, ponemos este mes en la ventana Atejoka de la web de Euskomedia.


Y por último otro recomendable texto: está en relación con el ciclo festivo que ha arrancado este mes con el Carnaval, seguirá en Semana Santa, Asunción y Corpus. Son las llamadas **"Fiestas de origen lunar"** porque sus fechas dependen de las fases de nuestro satélite. A este tema dedicó Mikel Aramburu Urtasun un breve pero sustancioso trabajo en uno de los primeros *Cuadernos de Antropología-Etnografía de Eusko Ikaskuntza*.



Gabriel Celaya



Archivo Sahats



Arantza Cuesta

ESTHER REBATO

Alimentación e inmigración

Los seres humanos se distinguen anatómica y fisiológicamente del resto de los animales por la gran variedad de alimentos que pueden incluir en su dieta. El hecho de ser omnívoros hace que los humanos no dependan de tal o cual alimento particular y estén en mejores condiciones para nutrirse que otros seres vivos. Esta fantástica adaptabilidad permite a nuestra especie desplazarse rápidamente hacia nuevos medios (ecosistemas) en los que los recursos alimentarios puedan ser diferentes. Ser omnívoro implica tener mayor autonomía, libertad y adaptabilidad, dado que, a diferencia de los comedores especializados, el ser humano tiene la facultad de poder subsistir gracias a una multitud de alimentos y de regímenes diferentes que le permiten, en consecuencia, adaptarse a los cambios de su ambiente. El hombre es además “el animal que cocina” (me apropio aquí del título del libro de mi colega y amigo E. Angulo, 2009).

La alimentación humana constituye un hecho biológico y sociocultural complejo. Cada sociedad tiende a alimentarse en función de su cultura y ecología, es decir, en función de los



de los tabúes o prohibiciones alimentarias y de los productos de su entorno y, por ello, a muchos de nosotros nos puede parecer que ciertos alimentos han estado siempre en nuestra cocina (de ahí que se hable de cocinas locales, regionales e incluso nacionales, como signo de identidad). Sin embargo, muchos de los alimentos que nos parecen habituales eran unos desconocidos hasta hace relativamente poco. Por ejemplo, la patata fue traída de América y costó más de tres siglos su arraigo en las cocinas mediterráneas. El tomate, el maíz y los pimientos también son americanos. El arroz, el melocotón, o la naranja, son asiáticos. Las espinacas, berenjenas y alcachofas fueron traídas por los árabes (J. Contreras y M. Gracia, 2005). Es evidente que los hábitos alimentarios y los movimientos poblacionales (migraciones) están íntimamente ligados y constituyen una buena herramienta para observar la adaptación de un grupo (étnico) a una nueva sociedad.

En la actualidad, el rápido crecimiento de la inmigración en nuestro país está introduciendo cambios en la alimentación y también está favoreciendo la fusión (todavía parcial) de nuestras culturas gastronómicas con las de los países de origen de los inmigrantes. Como señala el Observatorio Vasco de Inmigración (2009), frente a los inmigrantes conviven, en nuestro medio, actitudes ambivalentes, rasgos manifiestamente abiertos y tolerantes, con otros que denotan posturas más reacias. Precisamente, ante estas actitudes reticentes, la alimentación puede ser una forma de aproximarnos a la diversidad y multiculturalidad; y aunque las distintas cocinas constituyen según los antropólogos un signo de identidad cultural (“marcadores étnicos”), pueden ser a la vez elementos flexibles, aceptables y tolerables. El intercambio de platos autóctonos, el respeto a las preferencias alimentarias, la autorización de la libre circulación de productos de origen o de establecimientos en los que se comercializan productos manipulados según estrictas normas religiosas (como el “Halal”, por ejemplo) constituyen sin duda una muestra de tolerancia de las sociedades de acogida. A su vez, la progresiva adaptación de la alimentación de origen al nuevo espacio y, por tanto, la inclusión de procedimientos, ingredientes o platos de la sociedad de recepción sirve para reflejar el grado de integración social del inmigrante en el nuevo contexto y la reconstrucción de una nueva identidad readaptada (V. J. Martín Cerdeño, 2005).

Rebato, Esther M.; González Apraiz, Arantxa: “Evaluación antropométrica del crecimiento somático en adolescentes del medio urbano”. – En: “Investigación bioantropológica en la población de Bizkaia”. Zainak. Cuadernos de Antropología-Etnografía, 16. – Donostia : Eusko Ikaskuntza, 1998. – pp. 7-22.

Gertatu zen



Manuel Lekuona



Jean Ybarra



Irakaskuntza, politika eta erlijioa

Enseignement, politique et religion

Enseñanza, política y religión

Orain dela 90 urte abiatu ziren “berebiziko arrakastaz” Eusko Ikaskuntzak Madrilgo eta Gasteizko Ateneoetan ezarritako Euskara Katedrak. Zehaztasun gehiago nahi izanez gero, Buletinaren 9. aleak jakinazten du Gasteizko Katedra, on Manuel Lekuonaren ardurapean, otsailaren amaieran abiarazi zela ikasgela

betetzen zuten bi sexuetako eta gizarte maila guztietaiko ikasleen aurrean.

Otsailean halaber, baina Bilbon, Metodologia eta Goi Kulturari buruzko hitzaldiak ematen jarraitu zuten. Bonifacio de Echegarayk “El hogar, alma del Derecho vasco” gaiaz hitz egin zuen.

Jean Ybarra

Au début de l’année 1921 on procéda à l’élection d’un Vice-président en remplacement de feu Pierre Broussain Salagoity. Le nouvel élu était lui aussi de basse-navarre: Jean Ybarra, maire de Bayonne, député du Parlement français et joueur de pelote réputé.

Authentique factotum politique du département, il rassemblait entre 80 et 90% des votes. C'est pour cela qu’après son décès la revue *Gure Herria* lui dédia le panégyrique suivant: “Il y avait si longtemps que le Pays Basque avait été habitué à être représenté par M. Ybarra que pour beaucoup sa fin semblait emporter une partie de l’édifice euskarien, une partie de cette entité si pure et si erratique que les basques nous formons dans l’immense amalgame moderne”.

Una polémica

Tras su Segundo Congreso, Eusko Ikaskuntza fue objeto de críticas desde la prensa conservadora. Las acusaciones apuntaban a que su

reclamación de autonomía educativa para el País Vasco no iba acompañada con la misma energía del reconocimiento a los principios religiosos y a la autoridad de la Iglesia en materia de enseñanza en todos los grados.

Aunque intentó mantenerse al margen de la polémica, la Junta Permanente se vio en la necesidad de manifestar el 6 de febrero de 1921 que, acatando el concordato entre la Santa Sede y el Estado, la labor de Eusko Ikaskuntza se dirige a “la orientación de la enseñanza del País Vasco, en sus aspectos técnico y étnico, conforme a las características de nuestro pueblo y por órganos propios del mismo”.

Ikaskuntza zaleak



Isidro Sáenz de Urturi (socio nº 2.273)

Etnógrafo, lleva años implicado en labores de investigación y de difusión de los elementos autóctonos en territorio alavés, y más particularmente en la comarca de Apodaca. Ha estudiado la vida tradicional, el hogar doméstico, las fiestas o el trabajo artesano. Vicepresidente de la Sociedad Excursionista Manuel Iradier, miembro del Seminario Alavés de Etnografía, del Comité de Redacción de la revista *Ohitura. Estudios de Etnografía Alavesa* y de los Grupos Etniker. Asiduamente comparte sus experiencias en las tertulias radiofónicas de Eusko Ikaskuntza. Insignia de Oro de la Sociedad Manuel Iradier 2009 y Premio de la Sociedad Landazuri 2010.



José Félix Basozabal Zamakona (socio nº 5.204)

Ingeniero Naval y Master de Economía de Empresas (Instituto de Empresa, Madrid). Experto en Logística Integral (Universidad de Mondragón). Vinculado a la Administración Pública desde 1980. Como funcionario del Departamento de Transportes y Obras Públicas del Gobierno Vasco, ha desarrollado el proyecto del Observatorio del Transporte de Euskadi – OTEUS. También ha ejercido como profesional autónomo en la prestación de servicios de Dirección y Gestión de Proyectos. Miembro activo del programa emblemático de Eusko Ikaskuntza BAI y de su Foro de Gestión de la Demanda de Movilidad. Actualmente es Técnico de Innovación Educativa del Departamento de Educación del Gobierno Vasco.



Miren Arzallus Loroño (5.245 zk.)


Historian lizentziatura, Londonen nazioarteko politikan lanean jardun zituen zenbait urte jantziaren historiari buruzko masterra Courtauld Institute of Art delakoan egitea erabaki aurrek. Kristobal Balentziagari buruzko tesina burutzeak Getariako jostunarengan interesa piztu zion eta gaur egun bere bizitza eta lanean sakontzen duen tesiak prestatzen ari da. Ikasketak bukatu eta modaren historiaren alorrean lan egiten jarraitu zuen Victoria & Albert Museoan, Kensington Palace eta Kerry Taylor Auctions moda enkante etxean. Euskal Herrira bueltatu eta Getariako Balentziaga Fundazioan kontserbatzaile edo *curator* gisa lanean hasi zan eta gaur egun Museo berriaren prestakuntzetan ilusioz dihardu.



Juhane Dascon (membre nº 6.259)

Dans le cadre de sa maîtrise de géographie il travaille sur la question des pratiques et des représentations de la montagne en Polynésie Française (Tahiti). Il réalise un doctorat sur la question des mutations des territoires ruraux en explorant le cas du Kilimandjaro et de sa population paysanne les *Chagga* (Tanzanie). Il analyse les mutations territoriales induites par l'implication des paysans *chagga* dans le tourisme de trekking. Il soutient en 2009 son doctorat sous la forme d'une double écriture: texte et film-recherche. Aujourd'hui, poursuit ses travaux sur les mutations des espaces ruraux et sur le développement de l'écriture audiovisuelle comme mode d'analyse universitaire.

Argitalpenak



Catálogo de documentales cinematográficos agrarios (1895-1981)

AUTOR: FERNANDO CAMARERO RIOJA
MADRID : MINISTERIO DE MEDIO AMBIENTE Y MEDIO RURAL Y MARINO, 2010
287 P. : IL ; 24 CM.
ISBN: 978-84-491-1005-4


Desde inicios del siglo XX, el Ministerio de Agricultura ha venido realizando una significativa contribución al género documental cinematográfico para el conocimiento de la evolución de la agricultura, de la sociedad rural y de las políticas agrarias. Este Catálogo referencia 369 documentales, con un total aproximado de 5.000 minutos, sobre agricultura, ganadería, sector forestal, pesca, alimentación y medio ambiente. Más de la mitad fueron producidos por el Ministerio y sus Organismos Autónomos durante el periodo 1895-1981. De todo este patrimonio ya se han restaurado 840 minutos de documentales, y telecinetizado y digitalizado otros 1.700 minutos.



Recorridos por el cambio, la innovación y la incertidumbre

AUTOR: ANDER GURRUTXAGA ABADA
BILBAO : UPV/EHU, 2010
345 P. : IL ; 24 CM.
ISBN: 978-84-9860-349-1

El libro analiza el valor de la idea de innovación en nuestro tiempo. Asocia la riqueza del concepto al cambio experimentado en las últimas décadas y a la radicalización de la incertidumbre generada en nuestras sociedades. En todos los casos persigue una pretensión: enfrentar, con éxito, el grado de incertidumbre generado por las condiciones del presente y preparar el futuro con mejores expectativas. La hipótesis es que la innovación cree que los activos de la seguridad que se requieren para vivir e interpretar el mundo y la vida se encuentran y asocian a los activos y las acciones de la innovación, como si sólo cuando ambos se cruzan se experimenta la llamada para enfrentarse con las incertidumbres del presente.



Kristobal Balenziaga: Maisuaren eratzea (1895-1936)

EGILEA: MIREN ARZALLUS
DONOSTIA: NEREA-GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA, 2010
306 OR. : IR. ; 29 CM.
ISBN: 978-84-15042-03-7

Miren Arzallusek sinatzen du azterlan bikain eta aitzindari hau Cristobal Balentziagaren lehen aldia, ezezaguna dena: familia jatorria, lanbide garapena eta empresa jardunbidea harik eta, 42 urteko zela, Parisen ospea lortu zuen arte. Fresko historiko eta sozial liluragarri honek, dokumentazio oso eta irudi ugarien laguntzaz, birsortu egiten du Balentziagaren obra handiaren euskarri izan zen erreferentzia mundua. Zalantzarak gabe,honezkero kontsultako liburu bat modaren historiarako, eta argitalpen zaindu eta kalitate handikoan aurkezten dena, Donostiaroko Nerea etxeak ohi duen bezala.



Retazos de un país, I

AUTOR: JOSÉ IGNACIO TELLECHEA IDÍGORAS
A CORUÑA: EDITORIAL MENDAUR, 2010
622 P. : 25 CM.
ISBN: 978-84-937258-8-4

Segundo tomo de las *Obras Completas* de José Ignacio Tellechea Idígoras (1928-2008), doctor en Teología e insigne historiador. Incluye 116 artículos publicados en El Diario Vasco correspondientes a personajes históricos vascos nacidos entre los siglos XIV y XVII: San Ignacio de Loyola, Urdaneta, Legazpi, Garibay, Larramendi, Baltasar de Echave, Eguíbar, Eguren... pero también otros menos conocidos. Un voluminoso índice de nombres con más de 3.000 asientos da cuenta nominal de todos los personajes que el historiador donostiarra rescató de la olvidadiza historia. La mayoría de los artículos vienen acompañados de reproducción del recorte original y de ilustraciones.